



OSASUN SEKTOREKO ETA SEKTORE SOZIO-SANITARIOKO KUTSATZEAK LAN-ISTRIPU GISA HARTUKO DIRA

1. Aurrekariak

Martxoaren 10eko 6/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren bosgarren artikulua ezartzen duenez, *"Koronabirus bidezko kutsatzeak edo isolamendu-aldiak, salbuespen gisa, lan-istripuarekin parekatutako egoeratzat hartuko dira."*

Hori aldi baterako ezintasunaren **prestazio ekonomikoari** baino ez dagokio, *"Salbu eta frogatzen bada gaixotasuna lana egitean soilik kutsatu dela"*.

Hori oinarri hartuta, baja hartzen duten gaixoei, kontaktu estuek eta COVID-19rekiko bereziki zurgarriak diren pertsonen, oro har, dagokien **oinarri arautzailearen % 75** jasotzen dute, eta enpresak kontingentzia profesionalen estaldura hitzartuta duen mutualitateak edo erakundeak ordaintzen du.

Hala ere, Gizarte Segurantzako Ministerioak apirilaren 15ean emandako jarraibideek, hau ezartzen dute: *"Prozesu horien kontingentzia erabakigarria **gaixotasun arrunta** izango da beti"*.

Horrela, baja- eta alta-partreak **osasun-sistema publikoko medikuek** ematen dituzte beti, eta *"Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalen barne-prozedura bat egingo da lan-istripu bihurtzeko, aldi baterako ezintasunaren prestazio ekonomikoari dagokionez"*.

2. Kontingentzia profesionala

Hala ere, COVID-19ren ondorioak arintzeko neurri osagarriak ezartzen dituen maiatzaren 26ko 19/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren 9. artikulua ezartzen duenez, beren lanbidean ari direla koronabirusa hartu duten **osasun-zentroetan edo zentro soziosanitarioetan** lan

egiten duten langileen prestazioak lan-istripuaren ondoriozkoztat joko dira, *"Laneko arriskuen prebentzio-zerbitzuek hala egiaztatzen dutenean"*.

Kontsiderazio hori *"alarma-egoera amaitu eta hurrengo hilabetera arte"* gertatutako kutsadurei aplikatzen zaie, eta hori erreferentzia-aldi berean emandako lan-istripuaren partearen bidez egiaztatzen da.

Ildo horretan, Osasun Ministerioaren lan-arriskuen prebentzioko zerbitzuetarako jarduketa-prozedura, ekainaren 8koa, eguneratzeak honako hau adierazten du: *"Horrek esan nahi du maiatzaren 28tik aurrera baja- eta alta-partreak dagokion **Gizarte Segurantzarekin Elkarlanean Diharduen Mutuak** emango dituela"*.

Horregatik, ondorio guztietarako lan-istriputzat aitortzeko, sektore sanitarioan eta soziosanitarioan zerbitzuak ematen dituzten koronabirusen **kasu susmagarri eta baieztatuek** honako hauek eskatu behar dizkiote enpresari:

A) prebentzio-zerbitzuak lan-istripuak eragindako kontingentzia profesionala **egiaztatzeko eredia** betetzea, Osasun Ministerioaren prebentzio-zerbitzuetarako jarduera-prozeduraren I. eranskinean jasotakoa.

B) **Istripuaren parte ofiziala** lan-agintaritzari jakinaraztea, Lan Istripuen Adierazpen Elektronikoaren (DELT @) sistemaren bidez, azaroaren 19ko TAS/2926/2002 Aginduan ezarritakoaren arabera.